

7/2026 Irizpena, otsailaren 20koa Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna osasun-laguntza batean.

Eskatzailea: Osasun Departamentua

Txostengilea: Eduardo Santos Itoiz

Interesa: Frogaldirik eza. *Lex artisa* betetzeari buruzko azterketa, erditzeko modua hautatzeari eta osasun-langileak erditzean izandako jarduketari dagokienez.

Irizpen honen xedea da O-NOZeko osasun-zerbitzuen funtzionamenduak eragindako ustezko kalte-galerengatik ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat. Erreklamaziogileek 2024ko maiatzean aurkeztu zuten erreklamazioa, beren semearen izenean, erditzean emandako osasun-laguntzaren ondorioz semeak jasandako kalteengatik.

Espedientearen izapidetzeari dagokionez, Nafarroako Kontseiluak azpimarratu du erreklamazioarek Administrazioari eskatu ziotela erditzea gertatu zen ospitalearen edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erditze podalikoaren protokoloa edo gida klinikoa, baina eskaera hori ez dela aipatzen erreklamazioaren ebazpen-proposamenean. Kontseiluaren ustez, Administrazioaren ondare-erantzukizuneko prozeduretan bidezkoa da izapide-egintza bat ematea, zeinean jasoko baita frogaldi bat irekitzeari buruzko erabaki esplizitu bat, ondoren proposamen arrazoitua egin ahal izateko hura onartzeari edo ez onartzeari dagokionez.

Erreklamazioaren bidezkoatasunari dagokionez, Kontseilu honen doktrina errepikatua da Administrazioaren ondare-erantzukizunak izaera objektiboa duela. Baina osasun-alorraz ari garela, erantzukizun objektibo horrek ez du administrazioa emaitzen aseguratzailerik unibertsal bihurtzen. Funtsezko irizpidea *lex artisa* betetzea da (protokoloak, eskura dauden bitarteko guztien aplikazioa edo sendatzeko medikuntzaren eta asebetetzeko medikuntzaren arteko bereizketa), parametro gisa balio baitu jarduketa medikoa zientziaren egoeraren arabera zuzena izan zen baloratzeko.

Osasun-langileen betebeharra bitartekoena da, eta ez emaitzena: teknika egokiak behar bezalako arduraz aplikatu behar dituzte, sendatzea bermatu gabe. Erantzukizuna bakarrik egonen da, kaltea praxi txar baten edo *lex artisa* haustearen ondorio bada, ez kontrako emaitza baten sortze hutsagatik.

Lex artisa bete zen ala ez erabakitzeari dagokionez, Kontseiluak, lehenik eta behin, erditze motaren hautaketa aztertu du, fetuak posizio

podalikoa baitzuen (ipurdizko aurkezpena). Hasieran, fetuaren kanpoko bertsio bat edo zesarea bat egitea baloratu zen, eta bi aukeretarako baimen informatuak sinatu ziren. Kontsulta mediko eta balorazio berrien ondoren, ipurdizko aurkezpena zuen erditze baginala egiteko aukera ere planteatu zen, eta pazienteak baimena sinatu zuen erditze baginala egiten saiatzeko, baldin eta baldintza egokiak betetzen baziren. Erreklamatzailleak berak aitortu du aukera hori onartu zuela, bere medikuarekin kontsultatu ondoren.

Kontseiluak egiaztatutzat jo du pazienteari jakinarazi zitzaiola zer alternatiba, arrisku eta aukera zituen. Kontuan hartu zen, halaber, haren hirugarren erditzea zela, eta aurrekoek ere ipurdizko aurkezpena izan zutela. Hala ere, antzeman da ez dagoela dokumentu bidezko trazabilitaterik zesarearen/bertsioaren eta erditze baginalaren arteko irizpide-aldaketari buruz. Inguruabar horietan erditze baginala ez da *lex artis*aren kontrakotzat jotzen, Ginekologia eta Obstetrikiako Espainiako Elkartearen (SEGO) protokoloen eta Administrazioak aurkeztutako perituxostenaren arabera. Auzitegi Gorenak ezarri du medikuari dagokiola erditze-teknika erabakitzea, irizpide klinikoen arabera.

Kontseiluak ondorioztatu duenez, erditze baginala arrazoizkoa izan zen, eta ez *lex artis*aren kontrakoa, aldeztu aurretik kontuan hartu baitziren ager zitezkeen inguruabarrak eta konplikazioak, eta, gainera, bat etorri baitzen erreklamatzailleak adierazitako eta hark sinatutako lehentasunekin.

Erditzearen garapenari eta zerbitzu medikoen jardunari dagokienez, haurtxoa irteteko maniobrak kasu horietan egin ohi direnak izan ziren. 15:20etatik hasi ziren ikusten desazelerazio aldakor atipikoak monitorizazioan. SEGOren gidaren arabera, 30 minutu baino gehiago irauten badute soilik hartzen dira patroik patologikotzat. Horregatik, 15:50ean erabaki zen eredu patologikoa bazegoela, eta une horretan erditzea amaitzea erabaki zen. Jaiotza 16:15ean izan zen, arrazoizko denboraren barnean eta zesarea egin balitz baino azkarrago, zesarearako hogeita hamar minutu inguru behar izaten baitira. Erreklamatzailleak dio zesarea lehenago egin behar zela, 15:20an edo 15:35ean. Hala ere, Kontseiluak uste du lehenengo zeinuek ez zekartela eredu patologikorik artean. Espedientean ez dago bestelako zantzu edo txosten medikorik, zoritxarreko ondorioa (entzefalopatia hipoxiko iskemikoa) osasun-langileen jarduketa desegokiarekin lotzea ahalbidetzen duenik.

Laburbilduz, ez da praxi txarrik edo kausazko harremanik egiaztatu jasandako kaltearekin, eta, beraz, ez da bidezkoa osasun-administrazioaren ondare-erantzukizuna ezartzea.